

EBAZPENA, Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritzarena, Hezi+ proiektuko He-Aberastuz neurriari dagozkion zuzkidura ekonomikoak esleitzen dituen 2026-2027 ikasturterako.

AURREKARIAK

Lehenengoa. – Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan 2026-2027 eta 2027-2028 ikasturteetan Hezi+ proiektua diseinatu, garatu, jarraipena egin eta ebaluatzeko jarraibideak ezartzen dituen Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritzaren ebazpenaren bidez, proiektu horren garapen-esparrua arautu zen.

Bigarrena. – Ebazpen horren 4.2.1.c) artikulua He-Aberastuz neurria arautzen du. Neurri hori behar bezala ezartzeko, kanpoko begiraleen edo langile espezializatuen esku-hartzea behar duten hezkuntza-jardura hedatuak finantzatzera bideratuta dago.

Hirugarrena. – Hezi+ proiektuari atxikitako ikastetxeek He-Aberastuz neurrian parte hartzeko interesa adierazi ahal izan dute.

Laugarrena. – Bidelaguna programari dagokion prozedura ebatzi ondoren, eta Hezi+ proiektua arautzen duen Ebazpenaren 4.2.1.c) 6 artikuluan aurreikusitako bateraezintasunarekin bat etorritik, He-Aberastuz neurriaren ikastetxe onuradunak eta horietako bakoitzari esleitutako zuzkidura ekonomikoa zehaztu behar dira.

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. – Ebazpen honen I. eranskinean zerrendatutako ikastetxeei esleitzea Hezi+ proiektuko He-Aberastuz neurriari dagozkion zuzkidura ekonomikoak, eranskin horretan adierazitako zenbatekoetan.

Bigarrena. – He-Aberastuz neurriaren esparruan aurreikusitako jarduerak garatzeko kanpoko begirale edo langile espezializatuak kontratatzeari zuzenean lotutako gastuak finantzatzeko baino ez dira erabiliko esleitutako zenbatekoak.

Hirugarrena. – Emandako zuzkidura ekonomikoak ezin izango dira erabili material inbentariagarria, ekipamendua, altzariak edo bestelako baliabide materialak erosteko.

Laugarrena. – Esleitutako zenbatekoak bi zatitan ordainduko dira:

a) Lehenengo ordainketan, esleitutako zenbatekoaren % 38 ordainduko da, ikasturtearen hasieran.

b) Bigarren ordainketan gainerako zenbatekoa ordainduko da, dagozkion egiaztagiria aurkeztu eta egiaztatu ondoren.

Bosgarrena. – Finantzatutako jarduerak garatzeko kanpoko begirale edo langile espezializatuak kontratatu direla egiaztatzen duten fakturak eta gainerako egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte ikastetxe onuradunek.

Seigarrena. – Finantzaketarako ezarritako baldintzak betetzen ez badira, emandako laguntza berrikusi ahal izango da, eta, hala badagokio, dagozkion zenbatekoak itzultzeko eskatu ahal izango da.

Zazpigarrena.- Erreklamazioak aurkezteko epea 10 egun baliodunekoa izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren datan.

Aitor Uriondo Usandizaga
Ikaskuntza eta Berrikuntzako zuzendaria

I. ERANSKINA

HE-ABERASTUZ NEURRIAREN IKASTETXE ONURADUNEN ZERREDA ETA ESLEITUTAKO ZENBATEKOAK

LH	Kodea	Ikastetxea	Udalerrria	Esleitutako zenbatekoa
ARABA	10266	IES Miguel de Unamuno BHI	Vitoria-Gasteiz	8.706
ARABA	10349	IES Samaniego-Laguardia BHI	Laguardia/Oyón-Oion	8.706
GIPUZKOA	12946	IES Soraluze BHI	Soraluze	4.353
GIPUZKOA	12947	IES Mendata BHI	Deba	4.353
GIPUZKOA	12963	IES Elizalde BHI	Oiartzun	4.353
GIPUZKOA	12964	IES Bizarain BHI	Errenteria	4.353
GIPUZKOA	12967	IES Hirubide BHI	Irun	8.706
GIPUZKOA	13006	IES Arrasate BHI	Arrasate	4.353
BIZKAIA	14010	IES Dolores Ibarruri BHI	Abanto Zierbena	4.353
BIZKAIA	14068	IES Minas BHI	Barakaldo	8.706
BIZKAIA	14192	IES San Adrian BHI	Bilbo	4.353
BIZKAIA	14200	IES Eskurtze BHI	Bilbao	8.706
BIZKAIA	14510	CPI Karmelo Ikastola IPI	Bilbao	4.353
BIZKAIA	15021	IES Barrutialde BHI	Arratzu	4.353
BIZKAIA	15073	IES Berriz BHI	Berriz	4.353
BIZKAIA	15092	IES Muskiz BHI	Muskiz	4.353
BIZKAIA	15094	IES Sopela BHI	Sopela	4.353
BIZKAIA	15625	IES Kantauri BHI	Santurtzi	8.706